


# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1991ko Abenduak 13, 130. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**JESUS**  
"Ni Jesus naiz, eta  
alkoholikoa naiz"

**SORTEO  
NAVIDAD 1.989**

— N.º 41367 —

**4.º Premio**

100 MILLONES DE PESETAS,

VENDIDO EN ESTA ADMINISTRACION.

# Loteria

**Askok espero dugun miraria**



## HOTZ-BERO

KLIMATIZAZIOA

Maalako Errabala 33- etxabea,  
Tfnoak: 79 70 98 eta 77 04 83  
ARRASATE

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA  
(Estrazioak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA



**ARRASATEKO UDALA**

## **SANTAMASAK 91**

Eskaparate - Lehiaketa

1. Saria ...30.000 PTA eta plaka
2. Saria ...25.000 PTA

Epaimahaikoak abenduaren 21ean kalean zehar ibiliko dira



**FAGOR ELEKTRONIKA, S. Koop. Mgt.ak arrasatear eta aretxabaletar guztiei jakin erazten die hiru telebista-kanal berri iritsi direla gure bailarara.**

**Horiek behar bezala ikusteko, egungo instalazio asko guztiz edo neurri batean behintzat aldatu egin beharko dira.**

**Galdegin zeure ohizko instalatzaileari eta eskatu FAGOR EKIPOAK (ZZF homologazioaz Alemanian).**

**FAGOR**



# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:  
Arrasateko Udala

Zuzendaria:  
Iñaki Mendiguren

## Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi.

## Publizitatea eta harpidetak:

Amaia Sanz  
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:  
Goio Arana

## Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,  
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

## Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garañ, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Maria Agirre, Jon Etxebarria.

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:  
J. L. Arejolaleiba

Copyright:  
ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale  
Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

# Inkontsekuentziak eta ezgaitasuna

**D**uela urtebete —1990eko azaroan— estatu eta gobernu europarren buruek, Europako Seguritate eta Lankidetzarako Konferentzia (ESLK) bataiaturiko batzarra izan zuten Parisen. Bertan, Europako Kontseiluari “giza eskubide, demokraziaren oinarri eta kultur garapenerako printzipioak” zaindu eta suspertzeko betebeharrak bideratzen zitzaion. Bestalde, politikoei ohi duten erraztasun eta fineziaz, elkar zoriondu zuten, europar estatuetatik kulturaren aurrerakuntzarako izan ei den eskaintza dela eta.

Sei hilabete geroago, Krakoviako hirian UNESCO eta ESLKren erakundeetako adituak aritu ziren, kultur lankidetzaren ezinbesteko zutabeak diseinatzen. ESLKren kultur egitaraua zein izan zitekeen eta estatu bakoitzaren ardura nolakoa izango zen laburbiltzen zuen testua sinatu zuten ordezkariak. Kultur baloreen defentsa eta horien eta herrien arteko erlazioa zalantzagabea azpimarratzen zen idazki amankomunean, kultura guztien singularitate ukaezina erreibindikatuz.

Dubrovnik —kasu bat aipatzearen— mundu-ondarearen hiririk adierazgarrienetakoa zen. Ez dakit titulu horrekin jarraitu ahal izango duen; izan ere, serbiarren eta federalen armadek zeharo suntsitu bait dute hiria. Gizonaren itsukeriak eragindako kalte berreskuraezinak zerrendatzen hasiko bagina... Hobe dugu ariketa horri muxin egin!

Barregarri gertatzen zaizkigu, gehienetan, hitz ponpoxozko diskurtsoak. Insentsibilitateak —izurrite bailitza— gogor astintzen du gizartea eta altzairuzko oskolaren gisako geruzaz estaltzen du eguneroko bizimodua, indarraren botereak asmo onak menderatuz. Kultur ondarea, edozein zibilizazioen zati jareinezina izanik, arerioen helburu bilakatzen da, hain zuzen ere haren oroimen historikoa txikitzeko. Gizartearen kultur oinarria desagertuz gero, etorkizuneko belanaldiak otzanagoak izango dira, erreferentzia historikorik gabe. Hori egin nahi izan zuten Gernikarekin eta jomuga berbera daramate euskararekin.

Holandako Maastricht hirian, dirudienez, kontinente zaharraren joko-arauak definitu dira. Baliteke laster batean, ekonomi egitura berri batek erraldoi estatubatuarren lehenatasunari aurre egitea. Dena den, negargura sortzen du, baltzuango ibilaldi europarrari bestelako kolore eta ikuspegia eskainiko dizkion estatu ahaltsuen bilera horren aldamenen... bigarren mailako omen diren beste europarrak elkar txikitzen ari direla egiaztatzeak. Eta guri hurbilagotik dagokigularik, euskal kulturaren ezaugarriak jipoituta eta gutxietsita gertatzen ari diren une hauetan, Gonzalez Marquez jaunak Maastrichten defendatuko duen kultur balore bakarra... zezenketen iraupena dela ezagutzeak ere negargura sortzen du.

JOSEMARÍ VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa  
79 42 22

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84




**gili gili**

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



**ZENBAKI**

**Kontabilitatea**  
**Fiskalitatea**  
**Lana**  
**Zuzenbidea**  
**Juridikoa**  
**Finantzaketa**  
**Aseguruak**

Basabe industrialdea  
ARETXABAETA

Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99

**ARAMAIO**  
**okindegia**

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46



**ECUADOR**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE

Tfnoa: 79 14 06

**Entzerratuak herriari**

Arrasateko Udaletxean hertsirik gaude-nok, irailaren 30etik Euskal Preso Politikoei gelditu gabe eta era intermitentean daramaten Gose Grebarekin elkartzen gara.

Gure nahia solidarioak izatea eta gartzeletako aldarrikapenak hemen entzun araztea eta hauei indarra ematea da.

Zuzenbidezko Estatu batean onartezinak diren arrazoi politikoengatik mesprezatzen diren eskubide indibidualak errespetatu daitezten eta gaur egun dagoen legea bete dadin gure indarrak elkar ditzagun, ideologia guztien gainetik.

Herri honi, Arrasateri, gaur, larunbatak 7, gaueko 12etan greba mugagabe bat hasi dugula jakin erazten diogu, Kolektibo guztia, Euskal Herriko gartzeletan berriro elkar dadin eskatuz eta euren exijentziak geure eginez.

Dispersioaren zigorrari ez!!  
Presoak Euskadira!!

**Monterron ez da nahikoa**

Arrasateko ikasle bat naiz. Institutuan nabil eta iadanik hasi dira azterketak: garai latza eta denbora-eza... Monterron jauregian dagoen liburutegira joatea aspaldiko ohitura dut; bertan dauden liburu mordoak kontsultatzera, irakurtzera edo besterik gabe ikustera: batzuk oso onak, balio handikoak (ez bakarrik garestiak direlako).

Azkeneko bolada honetan eta ez bakarrik azterketak direlako, liburutegiko gelak (bat handia eta beste bi txikiagoak) jendez bete-beteta daude. Batzuetan ikastolako neska-mutilek mahaiak erabat hartuta dauzkate talde-lan bat edo, egiteko asmoarekin. Beheko haur-liburutegia ere umez josita egoten da; ikusi eta entzun izan ditut arratsalde euritsu hauek, nora joan ez jakinez, eskaileretan gora eta behera. Arrasateko liburutegia beharrezkoa ikusten dut ikasten ari garen gazteontzako. Eskoletan horrelako tokirik ez daukagunez, bertara jotzen dugu zuzenean. Beraz, lekuaren premia dela eta, ez legoke konponbide bat bilatzerik?

Publikoa deitzen da, baina ikasten ari

garen kopuruarentzat guztiz eskas geratu da. Eskutitz honen bidez, dei bat egiten diot dagokionari, neurriren bat hartzeko. Bada-kit ez dela erraza izango... baina hor dago erronka!


Besterik gabe, eskerrik asko Arrasate Press-ekoei eskaintako tarategatik.

Julen Aranzabal

**Alberto Encinasen kasuaz**

Ezer gutxi dakit legeez, baina gai naiz, gutariko ia guztiak bezala, ekintza zuzen eta okerraren arteko aldea bereizteko. Alberto Encinasi buruz egunkarietan idatzitakoa ezagutzen dut soilik. Manifestazio baten ondorioz izandako zenbait istiluren erantzunkizuna leporatzen diote arrasatear honi. Berau errudun bezala adierazten duten frogak, beti ere egunkarietan azaldukoaren arabera, urriak bezain zentzugabeak dira. Mutil gazte batek burutu omen zuen ertzainen aurkako eraso hori, mutil honek belarritakoa omen zeraman eta beltzarana izateaz gain, altuera txikikoa ere ba omen zen. Momentuan beldurtu egin nintzen, ni ere horrelakoxea naiz eta! Baina tira, Arrasate erdia datu horiekin identifika daitekeela pentsatzean lasaitu egin nintzen. Ez zuen epaileak, dena den, froga gehiagorik behar izan eta gartzela-zigorra ezarri zioten Alberto Encinasi. Martutene. 7 hilabete. Baina ez da kontu triste hau hemen bukatzen, Albertok berak hemen salatu zuenez, ertzaintzak bere fitxa poliziala zuen, nahiz eta aurrez inoiz atxilotua ez izan. Estatu demokratikoan gaude: pertsonak eskubide osoak omen ditu legearen aurrean. Ondorioa argia da, edo oker eginak daude legeak edo hemen injustizia nabarmen bat burutu da. Bukatzeko ni inoiz ez nautela inolako akusaziopean atxilotu aitortu nahi nuke (oro har inoiz ez dudala gizarte honetako legeen aurka ezer egin, ezta asmorik ere), baina ikusitakoak ikusita, ez ninduke harrituko niri buruzko fitxa poliziala izatea; hala ez bada lana arindu nahiko nizueke, horra hor sinaduraren azpian nire nortasun agiriaren zenbakia.

Andoni Urzelai  
NAN. 72 574 942



**Onduline** **TXOMIN HERIZ**

**URALITA** eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

# Zer deritzozu Gaztetxeari?



**Loli Hernandez**  
(Langilea)

Gutxitan sartu naiz eta ez zait gustatzen nola dagoen, baina ondo iruditzen zait gazteak lokal bat edukitzea inori trabarik egin ez eta inorekin sartzen ez diren bitartean.



**Jose Luis Ezkurra**  
(Langilea)

Idea ona da, ondo zainduta edukiz gero, ondo. Ni aurreko lokalean pare bat aldiz egon nintzen eta oso gaizki zainduta zegoen. Dena dela, uste dut gazteek behar dutela toki bat egoteko.



**Jesus Elkoro**  
(Pentsioduna)

Ez dakit, ni sekula ez naiz sartu. Beharrezkoa da lokala gazteentzat, gazteek nonbaiten sartu behar dute.



**Ana Heriz**  
(Irakaslea)

Gazteentzat lokala beharrezkoa dela uste dut, beraien ekintzak antolatzeke, baina ondo antolatuta egon behar du.




**Marcell Inciarte**  
(Pentsioduna)

Gazteek elkarrekin egoteko tokiren bat behar dute, elkarrekin gauzak egiteko. Ez daitezela kalean egon ezer egin barik eta denbora galtzen, oso ondo iruditzen zait lokal bat izatea.



**Iban Negreira**  
(Langabetua)

Ondo ikusten dut gaztetxea dagoen tokian egotea, eta gazteek lokal bat edukitzea derrigorrezkoa dela uste dut.



**NAROKI**

Erdiko kale, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 20 47

*Es Lu*

**ileapaindegia  
eta  
edertze-gela**

Olarte, 18 etxabea Tfnoa: 79 37 88  
**ARRASATE**

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako ambulanziaz .....	45 87 44
------------------------------	----------

**UDALTZAINGOA**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZAINZA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTZAILEAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

**GARRAIOAK**


Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte .....	79 87 77
---	----------



13

**OSTIRALA**

- Zinea: Alai: "Tacones lejanos" (5-7.30-10).
- Setien gotzaiaren Idazki Pastoralaren aurkezpena, San Viator Ikastolako aretoan arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gauez: Camacho, Bergara.

14

**LARUNBATA**

- Zinea: Alai: "Tacones lejanos" (5-7.30-10)
- Bideo-emanaldia, arratsaldeko 4.30etan Monterronen.
- Kontzertua: Donostiako *San Ignacio Abesbatzaren* emanaldia San Frantzisko elizan, arratsaldeko 8etan.



**Pilota**

- Ostiralean, arratsaldeko 7etan Iturripen Arrasate eta Azpeitiako taldeen arteko partidua.
- Larunbatean, goizeko 10etatik aurrera Iturripen Santamasetako Txapelketako finalak, gaztetxoan mailan.
- Igandean, goizeko hamaiketatik aurrera Iturripen Arrasateko eta Intxaurrendoko taldeen arteko partidua.

**Krosa**

- Igandean, goizeko 11etatik aurrera Santamas krosaren hama-hirugarren edizioa, ume eta helduentzat.

- Rock kontzertua, *Tijuana in blue Reincidentes* eta *Platero y Tú* taldeekin, Musakolako kiroldegian, gaueko 10etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santam. Gauez: Puy, Bergara.

15

**IGANDEA**

- Zinea: Alai: "Tacones lejanos" (5-7-9.30)
- Dantzaldia: arratsaldeko 7etatik aurrera herriko plazan, *Eguzki* taldearekin.
- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala. Gauez: Puy, Bergara.

16

**ASTELEHENA**

- Zinea: Alai: "Tacones lejanos" (7-9.30)

17

**ASTEARTEA**

- Zinea: Alai: "Tacones lejanos" (7-9.30)
- Ikastaroa: "Sendabide naturalak", udaletxeko pleno-aretoan arratsaldeko 8etan.
- San Frantzisko Xabier Ikastolaren Batzar Nagusia, arratsaldeko 6etan Gazteluondoko aretoan.
- Erakusketa: "Euskal zestogintza tradizionala", Monterronen.
- Udal-Pleno arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

18

**ASTEAZKENA**

- Ikastaroa: "Sendabide naturalak", udaletxeko pleno-aretoan arratsaldeko 8etan.
- Euskararen Hitzarmenaren sinadura berria, Monterronen eguerdiko 12etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

19

**OSTEGUNA**

- Ikastaroa: "Sendabide naturalak", pleno-aretoan arratsaldeko 8etan.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

## Deialdiak

### • San Frantzisko Xabier ikastolaren batzar orokorra

Datorren asteartean, hilak 17, San Frantzisko Xabier ikastolaren Batzar Orokorra egingo da Gazteluondoko batzar-areto berrian. Batzarre-rako lehen deialdia arratsalde-ko 6etarako iragartzen da; bigarrena, berriz, 6.30etarako. Batzarraren gai-zerrenda honako hau da: 1) Aurreko asanbladako aktaren onarpena eta aurtengo batzarreko akta onartzeko akordioa. 2) 1990-91 ikasturteko memoria eta txosten ekonomikoaren onarpena, komeni bada. 3) 1991-92 ikasturteko gestio-plana. 4) Galde-erantzunen txanda.

### • Gotzaiaren Idazki Pastoralaren aurkezpena

"Zorionekoak pake-egileak" izenburua daraman idazki pastoralaren aurkezpena egiteko, gaur hilak 13, arratsaldeko 7etan, Jose Maria Setien Donostiako Gotzaia Arrasaten izango da, hain zuzen ere San Viator Ikastolako Aretoan.

### • Autobusak Alcalara

Soldaduskaren aurkako martxa egingo da asteburu honetan, zehazki Alcalá de Henareseko gartzelara. Arrasatetik autobusa larunbat gauean aterako da, 1.30etan eta prezioa 1.000 PTAKoa da.

## Kontzertuak

### • San Ignacio Abesbatza

Bihar larunbata, hilak 14, Donostiako San Ignacio Abesbatzak kontzertua eskainiko du San Frantzisko elizan arratsaldeko 8etatik aurrera. Aipatutako abesbatza 1970 urtean sortu zen, San Ignacio Ikastetxeko ikasle eta ikasle-ohiek osatua.




## Santamasen atarian

### Hainbat ekintza izango dira asteburuan zehar

Oraindik Santamas eguna ez da iritsi, baina arrasatearrak girotu nahian eta datorren astekoak gutxi balira, hainbat ekintza antolatu dira asteburu honetarako. Ohi denez, bihar, hilak 16, Santamasetako Pilota-Txapelketako azken partiduak jokatu dira, goizeko 10etatik aurrera. Arratsaldean, berriz, kalejira eta San Inazio Abesbatzaren kontzertua izango dira. Gauean, rock-kontzertu paregabea rock-zaleentzat.

Igande goizean, Santamas krosaren XIIIgarren edizioa burutuko da, koadrilen artekoa nagusientzat eta banakakoa umeentzat. Arratsaldean, berriz, 7etatik aurrera herriko plazan Eguzki taldearekin dantzaldia. Honenbestez, asteburukoari amaiera emango zaio, baina gogoan izan asteartean zestogintzari buruzko erakusketa hasiko dela Monterronen. Txerria, azoka, herri-bazkaria, trikitalari eta bertsolariak, dantza-txapelketa, etab. datorren asteko kontuak izango dira.

Orain artean, abesbatza honek bi disko grabatu ditu eta Euskal Herritik kanpo makina bat tokitan ibili da kantari. San Ignacio Abesbatzak Jesus M. Unanue-ren zuzendaritzapean kantatzen du eta biharko kontzertua bi zatitan banatu du.



### • Rock-a Musakolako kiroldegian

Santamasetako egitarauaren barne, *Platero y Tú*, *Tijuana in Blue* eta *Reincidentes* taldeek rock-kontzertua eskainiko dute larunbatean, gaueko 10etatik aurrera, Musakolako kiroldegian. Sarrera, bertan 700 PTAKoa izango da; aurrez, 500.

### • Ekintza aldizkaria

Jubilatuek ateratzen duten *Ekintza* aldizkarian lagundu nahi duen edozein jubilatuk irekita dauka atea. Parte hartu nahi duenak, Iturbide egoitzan izena ematea beste ezer ez du egin behar. Jubilatua bazara eta ar-

tikuluak idatzi, argazkiak aurkitu, ideiak eman, marrazkiak egin edota aleak banatu nahi badituzu, badakizu nora jo.

## Antzerkia

### • Jubilatuen antzerki-talde berria

Udalaren hirugarren adineko programaren barne, jubilatuen antzerki-talde bat antolatu nahi da. Talde honetan edozein jubilatuk eman dezake izena, Iturbide Egoitzan hain zuzen.

## Argazkia

### • Argazki-lehiaketa

Santamasak gaitzat hartuta, urtero bezala, aurten ere argazki-lehiaketa burutuko da. Argazki guztiak, zuri-beltzez edo kolorez, 30x40 cm.ko kartulinetan aurkeztu beharko dira, urtarrilaren 8a baino lehen. Partaide bakoitzak, gutxienez 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu eta gehienez 5. Sariak: bilduma onenari, 25.000 PTA; argazkirik onenari, 20.000 PTA; bigarren argazkirik onenari 15.000 PTA eta Olentzero/Txoronpio argazkirik onenari 10.000.

## Jaialdia

### • Euskaldunen Egunkaria

Igandean, hilak 15, Donostiako belodromoan eta arratsaldeko 5.30etan Egunkariaren urteurrena ospatzeko jaia antolatu da. Jaialdira joan nahi dutenentzat autobusak antolatu dira. Autobusak arratsaldeko 3.45etan aterako dira Garibaitik eta bidaiaren prezioa 650 PTAKoa da. Gogorarazi behar da Egunkariaren aldeko bonoak eta Egunkariaren aldeko tonbolan parte hartzeko txartelak ora-indik salgai direla, hemengo taberna eta denda askotan.

“.....  
Politikoeak eta erakunde politikoeak, mugitzen den guztia derrigorren beren atzaparpean izateko joera alde batera uzten ari direla esango nuke eta euskaldunok elkarteetan antolatzeke era hau onartu dutela, elkarteei leku ematen dietela eta lagundu ere bai, Deba Garaiko kasuan behinik behin”.

(J. M. Mujika. AEDko Lehendakariak 1991-XII-10ean Donostian Euskararen Hitzarmeneko prentsurrekoan)

“.....  
SPRI programaren barneko 26 poligonoe-tatik, Aretxabaletako industrialdea izan zen eratu zen bigarrena, eta lehena da enpresa-kopuruari dagokionez, 58 alegia. Era berean, langile-kopururik handiena du, 528, hauetariko 356 lanpostu berriak direlarik”.

(EMPRESA XXI: 1991-XI-15)


“.....  
Hizkuntza-Politikarako Idazkaritzaren iritzi euskara gizarteratzeko ahalegina oso kontutan hartzekoa da, eta Arrasaten egin den bezalako planteia-mendua guztiz aintzakotzat hartzekoa da”.

(Mari Karmen Garmendia. EGUNKARIA: 1991-XII-11)

“.....  
Zortzi bat urte daramatzate eskenategi, gaztetxe eta bertsio artean, kalez kale. Arrasateko Zakarrak, “oi” soinua, agertu eta desagertu egiten diren bost morroi, punk-rock-a jenialitatez eta erabakitsu gauzatzen dutenak. Duela hilabete batzuk beren bigarren zinta kaleratu zuten, 10 errealitate indartsu”.

(Jon Landau. DEIA: 1991-XII-11)

Zer iritzi duzue Arrasateko Ezker Batua-Izquierda Unidakoek Anguitaren dimisioari buruz?



Arrasateko Ezker Batua ados dago Anguitak hartutako erabakiarekin, bai bere dimisioarekin eta bai planteatu duen proiektu politikoarekin. Proiektu hau IUko II. Batzar Federalean onartutakoa besterik ez da. Proiektu honek IU mugimendu politiko eta sozial moduan ezartzen zuen, antolamendu-mailan Koalizio Elektoral bezala egituratua; IUn dauden sentsibilitate ideologiko ezberdinen batasuna ziurtatzen zuen eta duen formula bakarra da.

Koalizio-formula hau gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa da. IUK behar duena, beste partidu eta kolektiboekin dexente zabaltzea da, etorkizunean gizartea eraldatuko duen alternatiba izateko. IU osatzen duten kolektibo ezberdinen batasuna mantentzea, partidu politiko bat eratuz, errealitate urrun bizitzea da.

Anguitaren dimisioarekin planteiatutako arazoaren azpian dagoena zera da: IUko gutxiengo batek zuzendaritzatik, eta oinarriko jendearekin kontsultatu gabe, sozialdemokrata erako partidu politiko bat osatu nahi du eta siglekin geldituz gero oinarri elektoral bat izango luke, bestela edukiko ez lukeena.

Baina IUko gehiengoak nahi dugun proiektua ez da hori, II. Batzarrean ikusi zen moduan eta III. Batzarrean ikusiko den moduan.

JOSEBA UGALDE,  
ARRASATEKO EB-IUKO ARDURADUNA.

Kaixo Olentzero:

Gabon hauetarako LORAMENDI KIROLAKen ikusi ditudan eski batzuk eskatu nahi nizkizuke, baita bertan dauden guanteak, apreskiak eta txamarra bat eta... zuek nahi duzun beste guztia ere.

Musu handi batekin agurtzen zaitut.  
Jonne

KASTLE  
ROSSIGNOL  
ATOMIC FOR SPORT  
TECNO PRO  
DYNASTAR  
NORDICA SPORTSYSTEM  
LK LORAMENDI KIROLAK

Maiatzaren 1a Plaza. ARRASATE Tfnoa: 79 97 24





Arrasateko Udala, AED eta Jaurilaritzaren ordezkariak eman zuten prentsaurrekoa

## Hitzarmenaren prentsaurrekoa

### M.K. Garmendiak Arrasaten egindakoa eredutzat jo zuen

Datorren astelehenean, hilak 18, Monterronen beste 20 taldek Euskararen Hitzarmena sinatuko dutela eta, Donostian prentsaurrekoa eskaini zuten M.Karmen Garmendia Hizkuntza Politikarako Idazkariak, Xabier Zubizarreta Alkateak, Jabier Ozaeta Hitzarmeneko Teknikariak eta Jose Mari Mujika AEDko Lehendakariak.

Orokorrean, Hitzarmenaren bidez lortutako emaitzen aurrean, baikor ageri ziren mahaiari zeuden laurak; esan zuten, euskararen ezagutzan aurrerapen

nabaria eman da Arrasaten. Mari Karmen Garmendiak eredutzat jo zuen Arrasaten euskararen alde egin den eta egiten ari den ahalegina; Xabier Zubizarretak, berriz, euskarari buruz hitz egin beharrean euskaraz gehiago hitz egin beharra aldarrikatu zuen. AEDko lehendakariak alderdi politikoen jarretan eman den aldaketa azpimarratu zuen, "euskaldunok elkarteetan antolatzeko era onartu dute" esanez. Azkenik, Jabier Ozaetak Hitzarmenaren izaeraz eta lortutakoari buruz hitz egin zuen.

#### Zergen ordainketa

Arrasateko zergadun guztiek 1991ko 3. hiruhileko ur, zabor eta estolderia-tasak, abenduaren 9tik urtarrilaren 20ra ordaindu beharko dituzte. Epe hori pasa ondoren, ordaindu gabe geratzen direnei %20a gehituko zaie.

#### Gazteentzako Informazio-Bulegoa

Gazteentzako Informazio-Bulegoa bi hilabetez goizez itxita egon ondoren, abenduaren 9tik aurrera, astelenetik ostegunera (goizez, 11etatik 1etara eta arratsalde, 5etatik 7etara) zabalik izango da berriro. Ostiraletan, berriz, goizez, 11etatik 2etara zabalik, eta arratsalde itxita izango da.

#### Talde Antimilitarista

Arrasateko Talde Antimilitaristak astelehen eta asteartean 5.30etatik 7etara Garibai Etxeko 1go solairuan informazioa eskainiko die soldaduzka egin nahi ez dutenei.

#### Eskerrak emanaz

Zarauzko hondartzan desagertu zen Pedro Jose Aranburuzabalaren senideek eskerrak eman diete Pedoren gorpua aurkitu nahian lagundu duten hainbat erakunde eta pertsonari. Bestalde, abenduaren 14ean, arratsaldeko 6etan San Juan Bautista Parrokian Pedro Jose Aranburuzabalaren hileta-elizkizunak izango dira.

**IZAGIRRE**  
*barategia*

Bañez Dk., 18 ARRASATE  
Tfnoa: 79 59 86

zeppelin



Loramendi, 3 etxabea  
ARRASATE Tfnoa: 79 74 09

• **Txitxinpe** •

**Berezitasunak:**  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

**ETXEPARE - BILINTX**

**LIBURUDENDA**

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50



## Oñatiko bertso saioa

Zubikoa pilotalekuan joan zen domekan 2.800 lagun inguru izan ginen Gipuzkoako bertsolari-txapelketaren final erdiko azken saioari begira.

Han genuen Leintzarrok ordezkari bakarra, Jon Sarasua. Finalera pasatzeko txartel bila zetorren Jon. Behar bada, berak esan bezala, trankilegi jardun zuen, berotu gabe. Oso saio orekatua egin zuen. Akats nabarmenik barik eta jendea gora-goraka jartzeko apartekorik egin barik. Tira, bat bai, bukaera emanda osatu beharrekoa. Horretan jendeak eskutako hotzak kendu zituen bai!!

Gainerantzean Lizasok eta Eguzkitzek gorabehera barik. Eguzkitze bera Lizaso baino hobeto ikusi nuen, batez ere hasieran.

Olalde urduri ibili zen eta bat baino gehiago beldurtu gintuen haren ahotsaren kukurrukuak. Loidisaletzek eta Sasiainek ez zuten beren mailarik erakutsi. Jon Maia, berriz, bere neurri antzian, baina zoritxarrez juraduak ez zuen behar beste puntuatu.

Duda barik saioko txispa Zeberioek jarri zuen. Apartekoa da gizon horren grazia, teknika oso jantzia ez den arren, batez ere gaiak «bere terrenora» ekartzeko daukan abileziagatik.

Puntuazioa honela izan zen: Eguzkitzek 530'5; Lizasok 528; Sarasuak 493'5; Zeberioek 481'5; Olaldek 476'5; Maiak 467; Sasiainek 455; eta Loidisaletzek 454 puntu.

Puntuazioa jakin aurretik Santamasetan koplari izango genuela esan zigun Jonek, baina seguruenik belodromoan kopla gutxi izango du. Eutsi goiari, muti!!

JON IÑAKI IZARZELAIA

# Txandaka

## BASERRIETAKO MAIZTERRENTZAKO BERRI ONAK

**G**ure baserrietako jabetza-moduak etapa desberdinak jasan ditu historian zehar, baina denok ezagutzen dugu hainbeste baserri jauntxo batzuen eskutan egoteak eta baserriar gehienak maizter edo errentari izateak eragin dituen miseria eta kalamidadeak, baserriko ondasunik handienak jabearentzako izaten bait ziren.

Denborak aldatu egin dira, eta bai maila handi batean maizterren egoera ere, baina oraindik ere "maizterza historiko" edo oso zahartzat jotzen diren asko ikus ditzakegu. Zorionez, 1980ko Nekazal Maiztertzaren Legeak, belaunalditan bere familia bizi izandako baserria eta bere lantokia dena erosi ahal izateko aukera eman diomaizter askori. Eta horrela, askotan gorabehera, saltsa ugari eta prezio altuak ordaindu behar izan badira ere, baserri dexente erosi dira azken urteotan.

Dena den, oraindik ere maizter asko dira gure inguruetan, 1.000 inguru Gipuzkoan bakarrik, eta hauen-tzako 92ko otsailean bukatzen zen baserria erosteko aukera eta gainera oso airean gelditzen zen aurrerantzean zer gertatuko zen beraiekin.



(\* Maite Aristegi


Epearen bukaera gerturatu ari zela eta nekazal sindikatuak aspalditxotik genbiltzan Gobernuarekin harremanetan Legearen luzapena eta beste hobekuntza batzuk lortzeko, eta badirudi azken egunetan kaleratutako Lege-Aurreproiektuak gai honi buruz geneuzkan aspi-

raziorik gehienak betetzen dituela, nahiz eta hobekuntza batzuk egin beharra ikusten den.

Hala, 1997ra arte luzatzen ditu maizterza historikoak eta erosteko eskubidea, eta oso interesgarriak diren zenbait alderdi sozial ere kontutan hartzen ditu (jubilaziora arte bertan egon ahal izatea, baserrian bizi ahal izatea maizterra eta bere ezkontidea bizitza osoan, kalera joan behar izanez gero baserriaren balioaren 1/3ren indemnizazioa jasotzeko eskubidea...), nahiz eta baserrien balorazio-kontuan irizpideak aldatu beharra ikusten den.

Espero dezagun bada, proposatutako hobekuntzak kontutan harturik, onar dadila Lege berria eta nahi duten baserriar guztiak jabe izatera iritsi daitezela.

(\* EHNEKO ZERBITZU JURIDIKOA.



**ERRASTI KRISTALDEGIA**  
**Plastiko eta burdinazko hodiak**  
**beirina eta kristalak**  
**akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

**J. M. Heriz**

Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak

Otalora Lizenziatua. Arrasate



Udaletxean gose-greban dauden lau pertsonak

## Udaletxean gose-greban

*Presoen eskubideak errespetatu daitezkeen*

Arrasateko Udaletxean gose-greban entzerratuta dauden Aitziber Uribetxebarria, Sagrario Lopez, Amaia Fernandez eta Urtzi Mendizabalek abenduaren 11n arratsaldeko 7etan Udaletxeko pleno-aretoan prentsurrekoa eman zuten. Talde honek adierazitakoaren arabera, presondegiatako sanitate egoera oso txarra da eta erakundeek ez omen dute betetzen presondegiei buruzko lege organikoak dioena.

Honetaz gain, gose-grebanda daudenek aipatu zuten, presoek sakabanaketa jasan behar izaten dute, baita erabateko isolamedua, aldizkako jipoiak, egoera higieniko eta dietetiko txarrak eta kasuan kasuko tortura psikologikoen erabilera sistematikoa ere.

Entzerratuek ziotenez, indarrean dagoen legeak, gertuen dagoen espetxean kondena betetzea ezinbestekoa dela dio, sende eta adiskideen bidez

munduarekiko harremana mantendu behar dutelako.

Basita ere, aipatu zuten, preso sozialak tartean jarri nahi dituztela, euskal preso politikoak fisikoki desagertzeko, preso sozialek askotan salatu duten bezala.

Goian aipatutako guztia lortzeko gose-grebari ekin diote lau gazte arrasatear hauek eta beren ustez gizartearen eta erakundeen esku dago preso daudenen giza eskubideak errespetatzeko arauak betetzea.

Bestalde, joan zen astean, hilak 5, Arrasateko Udaletxean *Senideak* elkarteak mozioa aurkeztu zuen. EAJ eta PSOE alderdi politikoek mozioaren aurka botatu zuten eta EE, EA, eta HBk berriz, alde. Honen ondorioz, botazioan enpatea izan zen eta, azkenik, Alkatearen kalitatezko botoarekin mozioa onartu egin zen.

## Usteak uste

**U**ra eman eta pix egiten duen panpina, txatximurka egin eta negar egiten duena baina gero "maite, maite" egin eta isiltzen dena, soineko zoragarri duen panpina eta bere senargaia, mila argi distiratsuz hornitutako espazio-untzia, telebistako azken heroia guda guztiak irabazteko tresneriarekin, zurekin batera sokatik ibiliko den txakur xarman-ta... Olentzero aurreko hainbat gauetako ametsen protagonista diren jostailu engainagarriak; izan ere, hain ederrak ikusten dira telebistan!

Baina gau magikoa heltzen denean eta zilarrezko paper dotorez batuta dauden paketeak zabaltzen direnean... agur magia! Agur publizitatearen magia!

Ezin uka publizitatea beharrezkoa dela gaur egun zerbait saldu nahi bada. Baina publizitatearen bidez errealitatearekin zer ikusirik ez duen produktu bat aurkeztea ez da publizitatea egitea, hori engainatzea besterik ez da, are gehiago kontutan hartzen badugu nori zuzentzen zaion jostailuei buruzko publizitatea.

Horrela bada, ez da harriztekoa Olentzero pasa eta egun gutxitara Arrasateko kaleetan zehar umeak soka-saltoka, goma-saltoka, zibarekin edo edozein baloiekin jolasten ikustea. Bitartean, datorren urteko publizitate kanpaina prestatzen hasiak izango dira nonbait, eta berriz ere egiazkoak ematen duten baina ez diren jostailuak eskainiko dizkigute.

AMAIA JAUREGI

# LEZARAN


**MARKO-JARTZEAK • LAMINAK • MARGOAK**

**Biteri Etorbidea, 11 ARRASATE**



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Uriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39




**Kanaria  
Irletara bi  
lagunentzako  
bidaia.**




**Renault Clio 1.1 CL (F. F.)**

# Sari paregabekak!

Beheko sei denda horietakoren batean erosketak egitean, bi sari bikain hauek zeureganatzeko aukera izango duzu, urtarrilaren 14ean ARRASATE PRESSEN egingo den zozketan parte hartuz.



Iturriotz kalea, 8 ARRASATE  
Tfnoa: 77 04 01




*Erikite* S.L.  
SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 20



Maalako Errabala, 5 ARRASATE  
Tfnoa: 79 19 25

# Fototrunkoa



Enrike Alonso zen joan den asteko pertsonaia.

Aste honetako irabazlea:  
**DAVID ZAITEGI**

Argazkikoa nor den esanez, bidali beheko txartela ARRASATE PRESSera (Azoka kalea, 1) eta aste honetan J. MARKIEGI etxeak emango duen opariaren zozketan sartuko zara.

## ERANTZUNA

**Nor da aste honetako pertsonaia?**


Izena: .....

Abizena: .....

Helbidea: .....

Herria: .....

Tfnoa: .....



**KATAIDE**

Kataide Poligonoa. ARRASATE  
Tfnoa: 79 60 10



Maala Errabala, 13 ARRASATE  
Tfnoa: 79 92 76



**J. Markiegi**

**JANTZIDENDA**

Olarte, 2 ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 32

**Urkulu Zain Dezagun**


Urkulu Zain Dezagun taldeak prentsaurrekoan adierazi zuenez, Lan Kide Aurrezkiko proiektuarekiko oposizioa bertan behera uztea erabaki du. Hemendik aurrera Urkulurako Plan Integrala nahi dute aurrera eramán.

**Berrigarak urtebete**

Bergarako Berrigara euskal astekariak lehen urtebetetzea ospatzen du aste honetan. Zorionak eta urte askotarako!

**Fagor**

Arrasateko Fagor-ek 700 milioitako estanzazio-sistema jarriko du Portugalen, Fordek eta Vollkswagenek batera Portugalen ipiniko duen kotxeen lantegi berrian. Fagor-ek lehia bizian bereganatu du lan-proiektu hau.



Behin sintonizatu eta gero ikusten ez bada, antena aplikadorea jarri behar.

## Telebista pribatuak ikusgai

### Antena askori aplikadorea jarri behar zaie

Joan den azaroaren 28tik Arrasateko 4.000 familiatan, aurrez antenak prestatuta zituztenetan hain zuzen ere, Tele 5, Antena 3 eta Canal + kate pribatuak ikus daitezke. Kate pribatu hauek ikusi nahi dituenak egin behar duen lehen gauza, telebista behar bezala sintonizatzea da: 49, 51 eta 53 kanaleetan hain zuzen. Behin sintonizatu eta gero, kate pribatuak ikusten badira ez da inolako aldaketarik egin behar antenan seinalea jasotzeko; bai, ordea, ikusten ez badira.

Kasu horretan, aplikadore bat jarri beharko zaio antenari. Aplikadorea jartzea, marka eta modeloaren arabera, 100.000tik 200.000 PTara kostatu liteke. Garestia badirudi ere, kontuan hartu behar da antena gehienak kolektiboak direla eta etxe-multzoan bizi direnen artean ordainduko litzatekeela diru-kopuru hori. Azkenik, aipagarria da aplikadore gehienak hementxe bertan egiten direla, Fagor Elektronikari; adituen ustez, "merkatuko hobereenen artean daude", hain zuzen ere.

**ONGIETORRIA JAIOBERRIEI**

De la fuenten Esteban, *Ane*. Abenduaren 2an.  
Zabala Sagasta, *Xabier*. 3an.  
Arizabaleta Alcalde, *Zumaia*. 4ean.  
Taracido Iglesias, *Jose Luis*. 5ean.  
Alegre Lage, *Aitor*. 6an.  
Alvarez Palacios, *Ainara*. 7an.

**EZKONBERRIEI ZORIONAK**

Fermin Berezibar & Idaia Herrarte. Azaroaren 30ean. Elizez. 2an.

**JOAN DIRENEI AGUR**

Marta Cuevas Gonzalez. Abenduaren 3an. 68 urte.  
Matilde Sinde Gorreyero. 7an. 28 urte.  
Concepción Zamora Aboitiz. 8an. 93 urte.  
Anizeta Aranzabal Gantxegi. 9an. 95 urte.

# FAGOR



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN  
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



**BILATU ZEURE  
ARBASOAK**


- Zuhaitz genealogikoak
- Famili jatorriak
- Abizenen ikerketa
- Harmarriak

**Elorza-Egiara  
genealogiak**

(Historian lizentziatuak)

Foruen Plaza, 1-5. Esk.  
ARRASATE Tfnoa: 79 58 80

*Izen*  
**PROPIOAK**



Orain dela bi aste ETBko **Egonean giro** programakoak etorri ziren gure erredakziora. Zozketa egin ondoren Beñardo kazetariari tokatu zitzaion kontatzea aste horretako alean zer aurkituko zenuten. Zer-nolako estuasuna pasatu zuen Beñardo gizajoak!

● Azken aste hauetan Udalak hainbat lanpostu fijotarako oposaketak egin ditu. Oposaketak gainditu dituztenen izenak eta dagokien lanpostua honako hauek dira: **Patxi Balzategi**, Udaltzain kaboa; **Blanka Jauregi**, Gazte-Teknikaria eta Gazte-Zerbitzuko arduraduna; **Kandi Fernandez**, Udalako Ingurugiro Eskolako Zuzendaria; **Goio Azkoaga**, notifikadorea.



◀ Joan den asteko *Fototrukoaren* irabazlea **Izaskun Zubizarreta** izan zen. Izaskunek beste askoren moduan, argazkikoa Edurne Erauskin zela asmatu zuen. Mila zorion irabazleari eta gainontzekoei segi bidaltzen, noizbait zozketan zuen txartela ere atera daiteke eta.

● **Jose Mari Alvaro**, 46 urtekoa, Burgosen jaio zen eta orain dela 18 urtetik hona Arrasaten bizi da. Psikologia Indus-triala ikasi zuen eta gaur egun LKSeko giza baliabideen sailekoko zuzendaria da. Duela 2 urtetik hona, Igeri-Taldeko par-taideia zen eta joan den astean Igeri-Taldeko Lehendakari berri izendatu dute.

**ASAGABASTER**

**JANTZIDENDA**

*Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena*

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Joan zen abenduaren 5ean Arrasateko Parrokian **Mozart-en Requiem** eskaini zuten Arrasate Musikal. orkestra sinfonikoak eta Gasteizko Manuel Iradier Abesbatzak. Kontzertua jendez gainzka eta oso ondo egon bazen ere, ilunduta gelditu zen ezbehar batengatik. Izan ere, Iradier Abesbatzako emakume bat kotxe batek harrapatu eta handik ordu batzuetara hil zen.




FotoImagen Argazkia

Argazkiko bikotea **Arantxa Lezarraga** eta Jose **Ignazio Garrok** osatzen dute. Uztailaren 27an ezkondu ziren. Zorionak bio!



Olarte kaleko etxea botatzen ari zirela Arrasateko harresiaren aztarnak agertu omen ziren. Hori jakin eta gero **Aranzadi Zientzi Elkartekoak** etorri zitzaizkigun Arrasatera. Dirudienez, hormaren oinarria harresiarena zen, baina ez beste guztia.



Pasa den asteburu luze honetan **Durangoko euskal disko eta liburu azoka** izan dugu. Eskoriatzako Irakasle Eskolako Ihardun Argitaletxearen stand-a ere bertan zegoen. Beste gauza batzuen artean, *Jazten* aldizkariak eta argitaletxe honek argitaratutako hiztegi berria ikusteko eta erosteko aukera zegoen.


**Gabonetan bitan irten bada, zergatik ez hirugarrenean?  
Ez geratu jokatu barik, aurten ere  
zertxobait tokatuko zaigu eta.**

**Ez itxaron azkenera arte,  
eta erosi "GORDOA" hementxe.**

**ZORIONAK!**

**Trinidad Ruiz de Alegria,  
1. Loteri Administrazioa**

**Erdiko kale, 10 ARRASATE Tfnoa: 79 12 27**









# Eten desiratua

Datorren astean,  
Santamasak eta  
Gabonak medio,  
aurtengo Zaldibarko  
Txapelketako azken  
ihardunaldia izango  
da. Forma onean  
dabiltzanei etenaldia  
ez zaie ondo  
etorriko, bai ordea,  
gaizki dabiltzanei.  
Batzuek,  
argazkikoek kasu,  
dagoeneko atsedeen  
hartu dute.



## ERROTA-GAIN Aluminioak

Aluminiozko leihoak (haustura termikoa) eta PVC

Altos Hornos-Azkarruntz auzoa BERGARA Tfnoa: 76 32 40 Faxa: 76 32 41



## A taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Fosforos	9	7	1	1	52	21	15
Adobe	9	7	1	1	38	26	15
Zulu's	9	7	0	2	39	29	14
Akaitegi Express	8	6	1	1	74	23	13
Los Heredia	8	6	1	1	38	16	13
Los Manchas	9	5	1	3	66	36	11
Kriskibalda	9	4	2	3	34	26	10
A. Kristaldegia	9	4	1	4	27	21	9
Jubilatus	8	3	3	2	37	34	9
G. P. Noski	8	3	2	3	31	19	8
Neanthertal's	8	4	0	4	25	19	8
S. Ind. Ugarte	9	2	3	4	23	33	7
Uglys	8	2	0	6	19	36	4
Koxkas	8	1	2	5	37	57	4
Expert	8	0	2	6	16	63	2
B. D. L.	9	1	0	8	12	64	2
T. San Josepe	8	0	0	8	15	60	0
Tronkoteak	---	---	---	---	---	---	---
<b>Total</b>	<b>144</b>	<b>62</b>	<b>20</b>	<b>62</b>	<b>583</b>	<b>583</b>	<b>144</b>

## B taldea


	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Los Motz	9	8	0	1	62	18	16
La Banda	8	7	1	0	42	14	15
Fasprint	9	6	3	0	42	19	15
Jo ta akabau	9	7	0	2	49	26	14
Potroak Lorategi	9	6	1	2	35	22	13
Navarros	8	5	0	3	32	16	10
Siblius Rover	9	4	2	3	25	25	10
Ganbelas	9	4	1	4	39	29	9
Danok Lagun	8	4	1	3	29	22	9
Anbotoste K. T.	8	4	1	3	26	31	9
Gau Azkenak	8	4	0	4	31	26	8
Bukanak	8	2	1	5	24	41	5
Txintxes Osorik	9	1	1	7	19	39	3
Inter de Alima.	8	1	1	6	14	41	3
M. K. A.	8	1	1	6	16	47	3
Maria del Monte	8	1	0	7	13	50	2
Oleee!	9	0	0	9	18	50	0
Totxus	---	---	---	---	---	---	---
<b>Total</b>	<b>144</b>	<b>65</b>	<b>14</b>	<b>65</b>	<b>516</b>	<b>516</b>	<b>144</b>

## C taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Adelaida Haizea	9	8	0	1	44	9	16
Gnu. Seg. Bilbao	9	7	1	1	30	6	15
Argi Ibili Mapfre	9	7	0	2	57	24	14
AEK	9	6	2	1	32	23	14
New Laso Arregi	9	6	1	2	30	16	13
Bar Kajoi	9	6	0	3	52	19	12
ATB	9	5	2	2	41	28	12
Diego Antonio	9	5	2	2	32	23	12
Txokeros	9	5	1	3	37	26	11
Aurrera bolie!	9	3	2	4	22	24	8
Aizpun Bila	9	4	0	5	34	55	8
Taberna Monter.	9	2	3	4	29	37	7
Arrasate Press	9	2	1	6	16	30	5
Alaves	9	2	1	6	18	41	5
Bayer de Lenitz	9	2	1	6	17	48	5
Shaktale	9	1	2	6	22	45	4
Sokoakoak	9	0	1	8	23	52	1
Whiskeria Linde	9	0	0	9	22	52	0
<b>Total</b>	<b>162</b>	<b>71</b>	<b>20</b>	<b>71</b>	<b>528</b>	<b>528</b>	<b>162</b>

## D taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Camerun's Trikiti	9	7	2	0	49	16	16
Arrasate Kirolak	9	7	1	1	37	16	15
Artzankos Udal.	9	7	0	2	40	18	14
V. C. Daglas	9	6	1	2	45	13	13
Bar Artano	9	6	1	2	39	24	13
Notxingan Flo.	9	6	1	2	33	21	13
Hirei	9	6	0	3	32	20	12
Arrasate Comer.	9	5	1	3	20	22	11
Pepelus	9	5	0	4	29	25	10
Bizkorak	9	4	1	4	30	25	9
Ghana	9	4	0	5	34	28	8
Kakajauri	9	3	0	6	21	29	6
Nagixak	9	2	2	5	21	31	6
Balaik	9	2	1	6	17	42	5
Resakas	9	2	0	7	23	39	4
Ezkinako Hontza	9	2	0	7	19	47	4
Atxanta ke te...	9	1	0	8	15	58	2
Sukumurus	9	0	1	8	11	41	1
<b>Total</b>	<b>162</b>	<b>75</b>	<b>12</b>	<b>75</b>	<b>515</b>	<b>515</b>	<b>162</b>





Hori bai, mutil! Baloari horrela eman behar zaio, konfidantza eta gogoz. Dagoena dagoela aurrean edo aldamenean, ez zaio jaramonik egin behar eta norberak pentsatutakoa ahalik eta hoberen egiten jarri behar da bihotza. Hortik etortzen dira etekinak.

## EMAITZAK

### A taldea

Los Heredia 3	Arrasate Kristaldegia 1
Koxkas 7	B. D. L. 1
Jubilatus 2	Zulu's 5
G. P. Nosk 3i	Kraskibalda 3
Uglys 1	Los Manchas 10
Akaltegi Expres 6	Fosforos 3
Expert 3	Adobe 3
Neanthertal's 0	Sum. Ind. Ugarte 1

### B taldea


Los Motz 9	Inter de Alimañas 2
Potroak Lorategi 5	Ganbelas 4
Bukanak 3	Jo ta akabau 4
Anbotoste K. T. 4.	Navarros 3
Gau azkenak 9	Oleee! 7
Maria del Monte 3	Fasprint 8
Txintxes Osorik 0	MKA 4
La Banda 5	Sibilus Rover 1

### C taldea

Diego Antonio 0	Aurrera bolie! 3
Aizpun Bila 8	Alaves 2
Sokoakoak 3	Argi Ibiliz 8
New Laso Arregi 1	Bayer de Lenitz 3
Monterey taberna 6	ATB 8
Shaktale 0	Adelaida 6
Gru Seg. Bilbao 1	AEK 2
Whiskeria Linde 3	Txokeros 8
Arrasate Press 1	Bar Kajoi 7

### D taldea

Nagixak 6	Atxanta ke te... 0
Pepelus 5	Ezkinako hontzak 2
Sukumurus Anboto 0	Hirei 6
Artzankos Udalaiz 1	Notxingan Florest 3
Arrasate Kirolak 2	V. C. Daglas 4
Bizkorrak 5	Resakas 2
Ghana 6	Kakajauri 4
Arrasate Comercial 0	Bar Artano 4
Balaika 0	Cameruns Trikiti 6



## LASO-ARREGI argazkidenda

Alfontso Jakintsua Plaza, 3  
ARRASATE

Tfnoa: 79 12 75

# EDERRA TABERNA

Iturriotz, 12  
ARRASATE

Tfnoa: 79 96 25

# RUMBA TABERNA



Iturriotz, 20  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 00

## ATERA KONTU!

Beste kontu bat  
ekartzen duenari

oparia emango

zaio sari



BANCO  
VITORIA

Garibai, 7  
ARRASATE



## Txutak

Ezusteko ugari

.....

Aurrez pentsa zitekeena baino emaitza arraragoak izan ziren joan den asteko ihardunaldian, faboritotzat jotzen ziren hainbat taldek ez zuten garaipenik lortu eta. Lehen multzoan, Fosforos taldeak, liderrak hain zuzen, galdu egin zuen Akaitegi Expressen aurka, 3-6; gainera, Expert taldeak, sailkapeneko azken postuetan egon arren, Adobe bigarren sailkatuarekin berdintzea lortu zuen. Bigarren multzoan berriz, MKA taldeak lehen garaipena eskuratu zuen Txintxes Osorik taldearen aurkako partiduan, 4-0. Hirugarren multzoan ere, sailkapenean bigarren postuan dagoen

Gnu Seguros Bilbao taldeak AEK taldearen aurka galdu zuen, 1-2. Azkenik, laugarren multzoan Video Club Daglasek 4 eta 2 irabazi zion bigarren sailkatuari, Arrasate Kirolak taldeari.

Datorren asteko ihardunaldiari dagokionez, ez da somatzen aparteko neurketarik egon daitekeenik. Hau da, multzo desberdinetako sailkapenetan lehen postuetan dauden taldeek irabazi egin beharko lituzkete datorren asteko partiduak, erraztasunez gainera. Interesgarritzat bi hauek jo daitezke: Potroak Lorategi - La Banda eta New Laso Arregi - Argi Ibili Mapfre.

Dena dela, hoberena ezer ez aurreratzea izango da, joan den asteko ihardunaldian gertatu zen moduan aste honetakoan ere pentsatu gabeko, emaitzak gerta daitezke eta.

Beñardo Kortabarria

### DATORREN ASTEBURUAN

#### A taldea

Los Heredia .....	Neanthertal's
Koxkas .....	Arrasate Kristaldegia
Jubilatus .....	B. D. L.
G. P. Noski .....	Fosforos
Uglys .....	Sum. Ind. Ugarte
Akaitegi Express .....	Talleres San Josepe
Kriskibalda .....	Los Manchas
Expert .....	Zulu's

#### B taldea


Los Motz .....	MKA
Potroak Lorategi .....	La Banda
Bukanak .....	Ganbelas
Anbotoste K. T. ....	Jo ta akabau
Danok Lagun .....	Fasprint
Gau Azkenak .....	Stibillus Rover
Maria del Monte .....	Inter de Alimarias
Txintxes Osorik .....	Navarros

#### C taldea

Diego Antonio .....	Txokeros
Aizpun Bila .....	Arrasate Press
Sokoakoak .....	Alaves
New Laso Arregi .....	Argi Ibili Mapfre
Monterey taberna .....	AEK
Shaktale .....	Bar Kajoi
Gnu Seg. Bilbao .....	Aurrera bolie!
Arrasate Telebista .....	Adelaida
Whiskeria Linde .....	Bayer de Lenitz

#### D taldea

Nagixak .....	Bar Artano
Pepelus .....	Balaiké
Sukumurus Anboto .....	Ezkinako Hontzak
Artzankos Udalaiz .....	Hirei
Arrasate Kirolak .....	Kakajauri
Bizkorral .....	Camerun's Trikiti
Ghana .....	Atxanta ke te merece
V. C. Daglas .....	Resakas
Arrasate Comercial .....	Notxingan Florest



Legarre Pabilioia.  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 62 11

# EGIDO

Automobilarentzako  
ordezko piezak

# BRANKA taberna

Zarugalde, 1 ARRASATE  
Tfnoa: 79 21 13

# Jovi

Pintura ekologikoak  
Diferentzia: zure osasuna  
Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neu-  
rritarako felpudoak. Pertsiana biri-  
bilkagarriak. Ehunezko horma-  
takoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

## Jesus

# “Ni Jesus naiz, eta alkoholikoa naiz”



tean hartu izaten eta ikararen eraginez ezin nuen irakurri, ikara baretzeko alkohola hartu behar izaten nuen; horretaz gain, ez nituen gogoratzen bezperan egindakoak. Kezkutzen hasi nintzen eta alkoholari utzi ez banio, seguru orain beste munduan nengokeen.

— Zail da edateari uztea?

— Bai oso zaila, gainera norberak bakarrik ezin dio utzi edateari, laguntza behar da. Ni hasieran Santa Agedara joan nintzen, desintoxikazioa egitera; hilabete

pasatu nuen bertan, pastilak hartuz. Handik etorrira Alkoholiko Anonimoetan sartu nintzen.

— Zer da Alkoholiko Anonimoen elkarte?

— Alkoholarekin arazoak dituen jendez osatutako elkarte, arazoa eztabaidatu, elkarri esperientzien berri eman eta alkoholarekin arazoak dituztenei laguntza eskaintzeko. Alkoholiko Anonimoetako partaide izateko baldintza bakarra edateari uzteko desioa izatea da. Lehen pausua gaixoak berak

“**Edateari utzi nionetik erabat aldatu da nire etxeko giroa**”

**J**esus-ek 51 urte dauzka, horietatik 35 edaten pasatu ditu. Egun batean, edariak menderatu egin zuela konturatu zen. Alkoholiko Anonimoen elkartera jo zuen, han jasotako laguntzarekin edateari utzi zion eta orain antzerako arazoa duen edonori laguntzen ahalegintzen da.

— Zergatik hasi zinen edaten?

— Uste dut besteen modukoa izateagatik izan zela, oso lotsatia nintzen gaztetan eta; edozer gauza egiteko trago baten beharra izaten nuen, baita dantza egin edo neskaren bati eskatzeko ere.

— Noiz hasi zinen edaten?

— Hamalau urterekin hemengo lantegi batean hasi nintzen lanean. Gazteena nintzen eta askotan, ni baino zaharragoek, ardoa erostera bidaltzen ninduten; gero berarekin batera edaten nuen. Lanetik irten eta gero ere, jende berberarekin ibiltzen nintzen, txikiteoan normalean. Hor hartu nuen ohitura.

— Egunero edaten zenuen?

— Bai, egunero mozkortzen nintzen, gehiago edo gutxiago baina egunero.

— Ondorioz, arazo latzak izango zenituen, ez?

— Batez ere etxean. Emaztea eta seme-alabak jipoitzen nituen, beti arazoa neuk izan behar nuen, etxean zegoen diru guztia neuk gastatzen nuen, askotan ezagunei dirua eskatu eta gero ez nien bueltatzen... oihuak eta borrokak eguneroko gauza ziren nire etxean.

— Noiz konturatu zinen alkoholikoa zinela?

— Osasunez ez nenbilen batere ondo, gibela izuorratuta neukan. Goizean esnatzerakoan, egunkaria eskuar-

eman behar du, taldearen aurrean bere burua alkoholikotzat aurkeztuz, “Ni fulano naiz eta alkoholikoa naiz”, hori da esan beharreko guztia. Gero esperientziak elkartrukatu, batak besteari arazoari aurre egiteko indarra ematen diogu.

— Noiztik Alkoholiko Anonimoetan?

— Duela lau urte sartu nintzen. Hasieran, astero 6 bileretara joaten nintzen hemen eta inguruko herrietara, edateko desioa joan arte. Orain, astean behin biltzen naiz elkarteko Arrasateko beste kideekin. Alkoholari utzi nionetik gauzak erabat aldatu dira nire bizitzan, etxean emaztea eta lau seme-alabekin asko hitz egiten dut; komunikazio handia dago gure artean. Familiakoek guztia barkatu didate, bai bait dakite ondo alkoholikoa gaixoa dela.

— Arrasaten nola dago arazoa?

— Arrasateko taldean astero hogeiren bat lagun biltzen gara, bailarako beste herrietan ere asko dira biltzen direnak. Beste arazo bat dago, jende asko egun batean etorri eta gehiago etortzen ez delako. Bestalde aipagarria izango litzateke gazteek alkohola edateko duten joera, geroz eta gazteagoak ikusten bait dira gero eta mozkor handiagoekin. Gaztea mozkortuta ikustea baino etxera joatea nahiago izaten dut.

— Zer egin behar du alkohola utzi nahi duen batek?

— Guregana etorri, bakarrik nekeza da eta. Hemen asteartero biltzen gara, Arrasate Pasealekuko 3. eko etxabea. Gurekin harremanetan jarri nahi duenak 79 83 03 (Jesus) edo 79 82 75 (Gloria) telefonoetara dei dezake, eta behar beste informazio eta laguntza emango diogu.

# Gabonetako loteria urteroko kalentura

*Urte askotan zehar dagoen ohitura da abenduaren 22rako talde-mailan edo pertsonalki dezimo bat erostea. Gehienok, nahiz eta urtean zehar loteriarik ez erosi, gabonetako loterian, besterik ez bada ere, partizipazio txiki bat hartzen dugu. Gure barnean aberasteko esperantzarekin jokatzeko dugu, nahiz eta kontrakoa adierazi.*


## Historia apur bat

**G**abonetako loteriaren zoketa gizarte-fenomeno garrantzitsua da. Mar-kes siziliar batek, Eskilatxe-koak hain zuzen ere, 1763 urtean asmatu zuen loteria. Loteria haren sistema, gaur egungo *Loteria Primitiva*ren berbera da. Hortik datorkio izena, lehen aldiz egin zen loteria halakoa zelako. Dena dela, beste motatako loteriak alde batera utzi eta gabonetako loterian finkatu behar dugu, horren garaia bait da.

Gabonetako Loteria 1818ko abenduaren 24ean egin zen lehen aldiz, eta zenbaki saritua 8.705a izan zen. Ordutik hona urtero egiten da zoketa hau; gerra zibilaren sasoian ere gabonetako loteria egin zen eta bai alde frankistan eta bai errepublikaren aldean zoketak burutu ziren.

Arrasaten, San Andres auzoan eta Erdiko kalean saltzen da loteria. Erdiko kaleko administrazioak urte askotan saldu izan du loteria, baina loteriako administrazioa ipintzeko estatuaren

baimena behar izaten da eta gerra aurretik Bergararik ekarritako loteria saltzen zuten, komisio txiki baten truke. Gerra ondoren, lagun batzuei esker administrazioa ipintzea lortu zuten.



Arrasaten diru asko gastatzen da gabonetako loterian.

## Hainbat datu

**G**abonetako loterian bildutako diruaren %25a Altxortegi Nazionalera doa; %5a, berriz, administrazio-ko gastuak eta loteria saltzen dutenen artean banatzen da. Beraz, jasotako diruaren %70a da sarietarako. Aurten gabonetako zozketan 131.670 milioi banatuko dira saritan, hain zuzen ere.

Kopuru hauek adierazten dute jendeak zenbat jokatzeko duen loterian. Arrasateko herria ez da atzean gelditzen loteria jokatzeko kontuan, gabonetako loterian batez ere, nahiz eta asterokoan ere jende dexentek jokatu.

## Loteriaren inguruan gertatutako anekdotak

**L**oteria sortu zenetik, normala den moduan, hainbat anekdota gertatu da; hona hemen batzuk: 1956an eta 1978an gabonetako *gordoa* zenbaki bera saritu zuen, 15.640 zenbakia, hain zuzen ere.

1856 urtean eta 1939an zenbaki jarraituek izan zuten saria, 13.093 eta 13.094

zenbakiak. 1919an eta 1929an, berriz, 53.452 eta 53.453 zenbakiak izan ziren saridunak.

*Gordoa*n gehien irten den azken zenbakia 5a izan da, 28 urtetan. 4a, berriz, 25 urtetan. Hurrengo 6a, 22 urtetan. Gutxien saritua izan den azken zenbakia, zazpi urtetan hain zuzen, 1-a izan da.

Milakotan badaude hainbat milako sekula ere ez direnak tokatu, 27, 37, 39, 41, 44, 51, 54, 56, 62, 64, 65. Honetaz gain, 63.370 eta 65.999 arteko zenbakiak ez dira inoiz sarituak izan.

Lau urtetan zenbaki sarituek azken hiru digitoak berdinak izan zituzten: 25.444, 25.888, 35.999, 55.666, hau nahiko kasualitatea ez balitz, denetan milakoa 5a da.

Arrasaten ere gertatu izan dira anekdota batzuk; orain dela urte batzuk, eta urte as-



Loteria erosi bezain laster jendeak ilusioak egiten hasten da.

kotan zehar, gabon ostean edo bestela abuztu inguruan Arrasatera jausten zen beti loteria. 1989. urtean eta 1990ean, berriz, gabonetako loterian laugarren saria toka-

tu zen. Zenbaki sarituak 41.367 eta 06.639 izan ziren.

Halako gertakizunen aurrean jendeak baditu hainbat mania, esate baterako, batzuek zenbaki altuak nahi di-

tuzte, beste batzuek bajuak. Batzuei zero zenbakia asko gustatzen zaie eta beste batzuek ikusterik ere ez dute nahi. Hainbatek, ostera, bukaerak zaintzen ditu eta ez du nahi edozein bukaera. Badaude pertsona batzuk zenbaki baten abonatzeari nahi dutenak; halakoetan Arrasateko Erdiko kaleko administrazioak San Andres auzoko administrazioa bidaltzen du jende hori.

Erdiko kaleko administrazio honetan aurten ere badago gertakizun aipagarri bat, oraindik zozketa burutu ez bada ere. Urtero entzuten da hango edo hemengo bidente, azti edo sorginen bategen zenbaki sariduna iragarri duela aurrez. Aurten, Arrasateri tokatu zaio. Madrileko bidente batek 54.392 zenbakia ikusi omen zuen bolan, eta berehala pentsatu zuen zenbaki horrek izan behar zuela aurtengo sariduna. Horregatik Madrileko zentralera deitu zuen zenbaki hori non zegoen jakiteko, hanesan zioten Arrasaten zegoela eta Arrasatera etorri ziren zenbaki horretatik 200.000 PTA erostera.

Bidente honengan fedea ipini dutenek eta zenbaki hau edo beste zenbakiren bat erosi dutenek aberasteko asmoz, oraingo honetan zorterik ez badute, hor dute urtarrilaren 5ean ere *Niño* loterian zortea probatzeko aukera. Gainera, sariak nahiz eta gutxiago izan handiagoak dira.

## 54.392 zenbakiaren istorioa

**A**urten 54.392 zenbakiak duen arrakasta nabarmena da. Madrileko azti honetaz gain, Bartzelonatik ere eskatu dute zenbaki honen hainbat dezimo. Administrazio honetakoek ez dakite Madrilekoak eta Bartzelonakoak harremanetan dauden edo kasualitate hutsa den biek nahi izatea zenbaki bera. Dena dela, kasu hauek ez dira bakarrak, ba omen zegoen Valladolideko beste pertsonaren bat ere zenbaki honetan interesatua. Dirudienez, Valladolideko ileapaindegiko batean loteria saltzen dute eta ileapaindegiko bezero bat loteria gabe gelditu zen, dena salduta zegoelako. Kasualitatea zer den... ileapaindegiko horretan ere zenbaki hau saltzen zuten. Bezeroaren beldurra zera zen, beste inguruko guztiak aberastu eta bera, berriz, ez zela aberastuko. Baina saiatzen direnek lortzen dutela diote eta pertsona honek, Arrasaten zenbaki hau saltzen zutela jakin bezain laster, deitu eta mezulari baten bidez dezimo bat bidaltzeko eskatu zuen.

# Berango



## Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE



### Koadrilen arteko Santamas Krosa igandean

Igande goizean, hilak 15, hamaiketarik aurrera Santamasetako kros-probak burutuko dira. Aurtengoarekin Santamas kroseko proben 12. edizioa izango da. Probak diogu bat baino gehiago izango bait dira; ordutegia hauxe: 11etan 13-14 urtekoen proba, 11.15etan 11-12 urtekoena, 11.30etan 10 urtekoen proba, 11.40etan 9 urtekoena, 11.50etan 8 urtekoena, 12etan 7 urtekoena eta 12.30etan koadrilen arteko proba.

Koadrilen arteko probak, 6 kilometroko

luzera izango du: irteera Portaloitik, Maalara; handik Otorara Muxibarreraino joateko; Muxibarren buelta eta Olartetik zehar Portaloiko helmugara. Proba hau arrasatearrentzat bakarrik izango da eta parte hartzearen ez da ezer ordaindu behar. Koadrila bakoitzetik, helmugara iristen diren bost lehenengoei emango zaizkie puntuak, lortutako postuaren arabera. Bost horien batuketa egin eta gero, garaipena puntuaketa txikien duen koadrilarentzat izango da.



■ Gipuzkoako txapelketan, Arrasateko pilotariak ez dabilta batere fin. Txikien mailan, Donostiako Errealaren aurkako partiduak jokatu zituzten eta hiru partiduetatik bat bakarrik irabazi, baita Loiolatarra taldearen aurkako neurketetan ere; nagusien mailan, gauza bera baina Idiazabalekin jokatutako partiduetan.

### Hurrengo partidua

Gaizki jokatu zuten arrasatearrek joan den asteburuko partiduan. Batek daki zergatik, agian erresponsabilitateagatik izan daiteke, baina Mondra hobeto jokatzen ari da kanpoan. Badirudi mondragoetarrek ardura gehiago dutela partiduak ez galtzeko irabazteko baino; hau da, partiduen hasierak ez dira txarrak izaten, baina behin lehen gola lortzen dutenean, baloiaren kontrola galtzen dute eta talde eskas baten irudia eman.

Fisikoki ez dirudi arrasatearrek inolako arazorik dutenik, baina psikikoki kontua beste bat da. Arrasatearren morala ez dago behar beste ondo, bestela ez da normala talde batek ligari hain hasiera ona eman eta orain hain joku eskasa erakustea. Duda bariarik, erremedio bakarra garaipean on batetik etor daiteke.

Gertatzen dena zera da: orain Mondra denboraldiko partidu txarrenak jokatzen ari dela, maila handiko taldeekin. Gernika, Real Union, Elgoibar... pasa dira Atxabalpetik eta oraingoan ere arerio zaila bisitatu behar: Amorebieta. Zornotzako taldea aurreneko postuetan dabil eta gainera bere futbol-zelaia ez da jokatzeko egokiena, oso estua eta areazko zoruaz. Beraz, futbola ahaztu eta baloiak erdiratzera mugatu beharko dute Izagirreñen mutilek.

**F A N C Y**

**GAZTEEN MODA!** Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

**beatriz**

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE




# J. C. MARTIN

## Gero eta korrikalari azkarragoa

Juan Carlos Martin dagoeneko hamabi urtetan dabil atletismoa egiten, hamabost urte zituenetik. Eskola Profesionalean ikasten zuen eta gimnasiako klaseetan ondo ibiltzen zenez, atletismoa egiten hasteko gonbidapena luzatu zioten. "Hasieran, luzera eta altuerako jauzietan egin nuen aproba, baina ez nuen aparteko markarik lortu: luzeran 5 metro eta 92 zentimetrokoa eta altueran metro bat eta 70 zentimetrokoa. Beraz, 400 metroko probak egiten hasi nintzen, lauak eta hesidunak. Orain gustora nabil proba horietan". Biak egiten dituen arren, Juan Carlos Martinek proba lau nahiago du hesiduna baino, denbora gutxiago eskatzen bait dio. "400 metro hesiak prestatzeko ordu asko sartu behar dira, teknika ondo menperatzea eskatzen duen lasterketa da eta. Horretarako bi arazo dauzkatz: bata lanean ibiltzea eta ondorioz eskaini nahi niokkeen denbora guztia ezin eskaintzea; bestea instalakuntza egokirik ez izatea, eta ezingo naiz bide bazterrean joan hesiak bizkarrean hartuta. Iturripek ez digu ezertarako balio atletismo taldekoei, oso pista txikia delako. Aspalditik ari dira esaten Mojategin pista egin behar dituztela, baina diferentzia han-

# PODIUMA



dia dago esatetik egitera. Hobe egia balitz!".

Normalean, adinean aurrera joan ahala abiada galtzen dela diote gizakia- ren balio fisikoen aztertzaileek; badi- rudi, Juan Carlos Martinen kasua bes- tea dela, adinean gora abiadan gora. "Bai, arraro samarra da. Orain bi ur- tera arte, 400 metroetan inoiz 54 se- gunduetatik jaitsi barik nengoen; behin muga hori gainditu nuen eta harrez gero beti gainditu izan dut. Pasa den azaroaren 30ean, Euskadiko txapelketan parte hartu ahal izateko marka ere lortu nuen, 52 segundu eta 2 dezime- takoa. Aurrera begira, uste dut 52 se- gundutako muga ere gaindituko dudala, ez bait daukat atletismoa uzteko inolako asmorik". Ea bada hainbeste urtetan atletismoan ari den arrasatear hau noraino iristeko den gauza urtarri- laren azken aldera Donostian burutuko den Euskadiko Txapelketan.

### ◆ Xake-txapelketa

Santamasetan, 20, 21 eta 22an hiru- garren Xake-Opena jokatu da. Xake txapelketa honetan, nahi duten guztiek izango dute parte hartzeko aukera, hi- laren 19a baino lehen izena ematen badute. Izenematea egiteko nahikoa da 79 21 10 telefono zenbakira deitzea.

### ◆ Saskibaloiko taldeak irabazle

Centraljet Euskal Air-eko emakume eta gizonezkoen taldeek garaitzea lortu zuten joan den asteburuko konprome- zuetan. Emakumeek 68-77 irabazi zuen UPV-EHU taldearen kantuan. Datorren astean, Tabirako taldearen aurkako par- tidua jokatu dute. Gizonezkoen tal- deak ere arazo barik irabazi zuen, 101- 78 M. El Paraisori. Datorren astean ere, arrasatearrek irabazi beharko lukete, Urdanetakin jokatu dute eta.

### ◆ Cnes. Brues geroz eta hobeto

Cnes. Brues-ek garaipen berri bat lortu zuen Arabako txapelketan, Lagun Artean taldeari 2 eta 3ko emaitzaz ira- bazi bait zion. Garaipen horri esker, arrasatearrak sailkapeneko bigarren postuan daude liderrarengandik bi puntura. Aste honetan, Iturripen izango dute partidua, Ra\* 55 taldearen aurka.



Gipuzkoako Federazioak Sonia Txapa- rrori aurtengo atleta hoberenaren saria eman berri dio. Igerilari arrasatearra Estatuko Txapelduna da eta Munduko Txapelketan ere hartu zuen parte. Zorionak, Sonia!

## "PAL"

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Urribari etorbidea, 3  
Tfnoa: 79 31 99



## PAZI-OLA SA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91

# Hoztura arrunta edo koriza

**G**oi-arnasbideetako infekzio arrunta dugu hau, eta beronen ezaugarri nagusiak doministikuak, mukijarioa (ia-ia ura bezalakoa), eztarriko narradura edo irritazioa, eta batzuetan begietako konjuntibetako ere bai; eta honetaz gain, batzuetan sukarra, hotzikarak eta gorputz guztiko ondoeza ere izaten dira.

Errinobirusak sortua da, hauetako 100 tipo ezberdin ezagutzen direlarik. Udazken aldera agertzen dira normalean, baina edozein urtarotan aktiba daitezke. Pertsona batek hoztura hauetako bat baino gehiago jasan ditzake urtean zehar; normalean 2-7



egun bakarrik irauten dute, baina batzuetan astetan zehar luzatzen da, osatzea nekeza bihurtuz.

Kontuan izan behar da errinitis errepikakor eta iraunkorrak gertatzen badira, errinitis alergikoa izan daitekeela; orduan, sorrera ezberdina izaten da eta tratamendua ere bai.

Gerta daiteke errinitis arruntak otitis, sinusitis,

bronkitis... eta horrelakoeekin konplikatzeko, arnas infekzioak errazago agertzen bait dira beste germen batzuek eraginda ere.

Tratamendua sintomatikoa izaten da, ezerk ez delako errinobirusa akabatzen.

Sudur-deskongestionatzaileak egokiak izaten dira, baina kontuz erabili behar dira, batzuek efektu sekundarioak bait dituzte.

*Ur gaziarekin egindako sudur-garbiketa oso eraginkorra izaten da. Jogiek Neti teknika edo "sudurre-tako dutxa" erabiltzen dute, hozturei aurre egiteko. Ur gazi epelaz betetako katilu batean sudurra sartzea besterik ez da; ondoren, arnasa hartu beharrean, atzeraka mugimendu bat egin glotisaz ura eztarrira heldu arte, ur-pittin bat mantendu sudurretan eta ondoren utzi dena ir-teten. Bestela, sudurraz arnasa har daiteke, piskanaka likidoa barrura sartzeko. Kontseilagarria da goizean 3-6 bider egitea, eta berdin gauean ere. Saiatu, eta ikusiko dituzu ondorioak.*

*EUKENI & ARANTXA*




Zu ere mendizale bazara, biok elkarren lagun

• **Katu oinak** •

**Mendi, eskalada eta kirol-gaiak**

Loramendi, 8 ARETXABALETA Tfnoa: 77 02 69



# LASO-ARREGI argazkidenda

✓ **Argazki-makinen eskaintza  
%10etik 50erako beherapenaz**

✓ **Bideokameren eskaintza  
%10eko beherapenaz**


*Argazki zoriontsuak eta  
Urte Berri on!!!*

**Alfontso Jakintsua Plaza, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 12 75**

# Hamabostaldiaren katalogoa

**A**urten ez da Arte Hamabostaldirik egin, baina horren orde, Arte Hamabostaldiko antolatzailleek aurreko bi urteetan egindakoa erakusteko, katalogoak kaleratuko dituzte. Oraingoz, duela bi urte burututako I. Arte Hamabostaldiaren katalogoa bakarrik dago eginda, baina urte hasierarako II. Arte Hamabostaldiari dagokion katalogoa ere kaleratu izango da seguraski.

Duela bi urteko Arte Hamabostaldia erakusten duen katalogoan, orduan parte hartu zuen hamaizpi artisten lanak ikusteko aukera dago, zeramika, grabatugintza, argazkilaritza, bideogintza, eskultura eta pintura alorrekoak. Aipagarria da, katalogoa kalitate handiko paperean eginda dagoela eta oso kolore biziekin. Horretaz gain, diseinu arloari dagokionez, aipatze-



koa da artista bakoitzak egin duela bere lana erakusten duen orriaren diseinu; katalogoa horregatik da hain bizia, bakoitzak bere estiloarekin egin duelako. Katalogoak, beste herri batzuetako liburategietara bidaltzeaz gain, herriko liburudendetan salgai jarriko dira, gutxi gorabehera 2.500 PTAtan. Bigarren Arte Hamabostaldia erakutsiko duen katalogoa ere antzerakoa izango da; hau da, bigarren Arte Hamabostaldian parte hartu zuten

bederatzi artistek diseinatutakoa.

Katalogoak kaleratzea urtero egin nahi izan den gauza da, baina arazo ekonomikoak medio, orain arte ezin izan da egin. Aurten, Arte Hamabostaldia egin beharrean, horretarako zegoen diru laguntza katalogoak kaleratzen gastatzea erabaki da. Dena dela, ziur ez bada ere, Arte Hamabostaldiaren antolatzailleek badute oraindik zerbait egiteko asmoa, ezer zehaztu ez bada ere.

## Barkatu, Gamma Ray

Barkatu larunbatean Txibiston eskaini zeniguten kontzertuaren kronika zutabe bakar batera mugatzeagatik. Nire esku balego, ale berezia prestatuko nizuke, merezia duzue eta.

Kronika telegrafikoa: *Ragek* ez jo. Ahotsarekin arazoak. *Non Bait* oreretarrak ordezkutzen. Ondo, duintasunez. Publikoa hotz. *Gamma Ray*: Txibisto gainezka. Bi ordu eta laurden jotzen. Paregabeko profesionaltasuna. Umiltasun harrigarria. Publikoarekin erabateko komunikazioa lehenengo unetik. Zoragarria. Mua eta mua. Agur eta, mesedez, itzul zaitezte.

PATXI MONTERO



## INJINERU TEKNIKO GAZTEA BEHAR DA PRODUKZIO-SAILERAKO


Ezinbesteko ezagupideak:

- Produkzio-sistemak ezagutu
- Egun-eguneko produkzio-teknikak ezagutu
- Tailerrerako zaletasuna

Berehalako lan-kontratua  
Betebeharren arabera soldata

Interesatuak idatz dezatela UCEM CERRAJERA S.A.  
Posta kutxa 1. ARRASATE

Kartazalean jarri UCSA-2 erreferentzia.



# Angel Barandiaran

## Aretxabaleta abesbatzako zuzendaria

◆ **Txibisto: Ian Gillan, Mama's Boys, Barricada**  
Eskaintza zabala Txibistok asteburu honetarako luzatzen duena: Ostiralean *Barricada*, eta larunbatean *Ian Gillan* (*Deep Purple* taldearen kantaria zena) gehi *Mama's Boys* amerikarrak telonero gisa. Bestalde, larunbatean, Aretxabaletako gaztetxean *Malaña* taldea arituko da 11etatik aurrera.

### ◆ AED sariak

AEDko lehiaketan irabazleak ezagutzeko abenduaren 20ra arte itxaron behar da, baina finalisten zerrenda eman daiteke. **Bertsioetan:** Rikardo Gonzalez de Durana, Jon Iñaki Izarzelai, Danel Goikolea, Amaia Agiriano eta Agurtzane Iñurrategi, Saioa Arando, Amaia Agiriano, Maier Velez eta Kepa Zubizarreta, Lorea Uriarte, eta Ainhoa Agirreazaldegi. **Poesian,** Naiara Bengoa bakarrik. **Ipuin-lehiaketan:** Asier Etxaniz, Andoni Urzelai, Jabi Tramon, Mirian Altube, Leire Diaz de Gereñu, Amaia Astobiza, Naiara Altube, Beñat Lezeta, Miren Oianguren, Nerea Altube eta Maier Velez. **Komikietan:** Amaia Martiartu eta Pernan Gofñi, eta Iban Astondoa. **Argazki lehiaketan:** Karmelo Uribarren, Jabier Ozaeta, Gerardo Amozarrain eta Raul Diaz. Azkenik, "Jokin Zaitegi" **itzulpen laburren sariketan,** Iñaki Azkuneraren izena aipatzen da.


**Aretxabaleta Abestatzaren lorpenak ezagutu dira azkenaldi honetan. Angel Barandiaran bertako zuzendaria da, maila on hori lortzeko lana egin eta eragin izan duen gizona.**

— Kantu gregorianoan sari garrantzitsuak eskuratu dituzue, zergatik gregoriano arloa?

— Egia esan, guk aspaldidanik ezagutzen dugu kantu gregorianoa, elizan abesten duen abesbatz horietakoa bait gara. Beraz, normala da hango eta hemengo kantu gregorianoa lehiaketetan parte hartzea, Tolosakoa kasu.

— Ahalegin berezia eskatzen du kantu gregorianoak?

— Izugarria, maila handia lortzeko zailtasun tekniko handiak gauditu behar dira eta. Lehen aldiz Tolosako lehiaketan parte hartu genuenean, garbi ikusi genuen maila hobetu beharra. Orduan, Silos-eko monastegira joan ginen kantu-mota hau hobeto ezagutzeko asmoz. Harrez gero, urtero joaten gara, bertan ikasitakoak izugarri lagundu digu eta.



— Aurrera begira, zein plan dituzue?

— Aldi batetan behintzat kantu gregoriano mailako lehiaketetan parte hartzea alde batera utzi beharko dugu, tentsio handia dakar eta. Dena dela, beste lehiaketa-mota batzuetan parte hartzeko asmoa ere badaukagu.

— Eta Aretxabaleta

Etorkizunean emakumez osatutako abesbatza izango da

**Abesbatzari, zein etorkizun ikusten diozu?**

— Nire ustez garbi dagoen gauza bakarra, emakumez osatutako abesbatza izango gara. Taldea osatzen duten gizonak jadanik edadetuak dira, eta gainera gazte berririk ez zaigu hurbiltzen. Gazteak etorriko balira, berdin litzaioke jendea adinean aurrera joatea, orduan jarraipena ziurtatuta izango bait genuke.

Emakumeekin ez da horrelakorik gertatzen, bestelakoa baizik. Ez da denbora asko gatzetxoentaldetik hamaika neskatila etorri zaizkigula. Horregatik esaten dut etorkizunean *Aretxabaleta* Abesbatza, emakumez osatutako abesbatza izango dela.

— Eta zure kargua?

— Beno, zuzendari askorik ere ez dago, baina hori ez da bakarrik gure arazoa. Dena dela, orain musikarekiko giro ona dago eta baliteke abesbatzetako zuzendariak irteeta. Hori gertatu arte, nik ez dut zuzendaritza uzteko asmorik; beraz, alderdi horretatik Aretxabaletan lasai egin daitezke.

# KiDE

## Paperdenda eta jostailudenda

Erguin, 5 ARRASATE Tfnoa: 79 25 77

# URRATS

## AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

# “Etxeko enplegatuak”

**G**utxi gora behera 37.000 dira Euskadin dauden “Etxeko Enplegatuak”. Emakume hauek lana merke egiten dute, arau bereziak eta nagusikeriak jasanez, babesgabe eta lan-kontratu gabe. Kolektibo hau besteen zikinkeriak garbitzera dedikatzen da eta hau 2 txakurtzikiren truke. Erdiak baino gehiago ez daude aseguratuta, baina bai soldata negargarriekin, 200 PTARA ez bait zaie iristen beren orduko irabazia. Lan-orduak 40tik pasatzen dira eta erreklamazio txikienagatik despidorearen arriskuan daude. Gizarte honetan dauden defizientzia guztiak estaltzen dituzte: haurtzaindegi, labandria, jantoki, gaixo, zahar eta gainerako asistentzi lanak eginez. Gaur egun edozein estatu demokratikotan egon beharko luketen asistentzi zerbitzu minimoak berauek betetzen dituzte.

Kolektibo hau ekonomia ezkutuan sarturik dago eta ia pobrezian, beren bizitza aurrera ateratzeko edozein lan egoera onartzera behartuta. Kondizio sozial hauetan gaitasun gabe agertzen dira, baina emantzipatzeko daramagun prosezuan, bai jenero, klase eta Euskal Herri bezala, gure gizarteko subjektu aktiboak dira.

Dekretuaren indargabetzea eta beste langileek bezalako eskubideak izatea exijitzen dugu, eta bereziki:

- Etxean egoteko "presentzialdiaren" desagertzea.
- Lögela eta janariagatik deskontuen desagertzea.



- Aparteko soldatak, bakoitza hilabetekoa.
- Lan berdintsuak dituzten langileekin parekotasuna.
- Hilabeteko oporrak.
- Ez “desestimien-to”ari.
- Ez despidoari.
- Lan-kontratu idatziz eta nomina.
- Kontratazioak enplegu-bulegoen bidez egitea, eta agentzia pribatuak desagertzea.
- “Etxe-Enplegatuak” gizarte-segurantzako erregimen orokorrean sartzea.

*ESK-CUIS, CCOO, LAB, KT, STEE-EILAS, EGIZAN, EMAKUMEEN ASANBLADA*

**ITSASKI**  
arrandegia  
arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
Arrasate 79 98 94

**Gabriel Elorriaga Dka.**

**Loditasuna • Zelulitia  
Zelulolipolisiaren  
tratamendua**


Santa Kruz, 24-1ª (1ª C Eskailera)  
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

**HUETO Doktorea**

**Eztarria, sudurra,  
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11  
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



**EGVZKIGRAF**

**Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia**  
Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

## ETXEBIZITZAK

- **Munarren etxebizitza salgai.** Eguzkitsua, eraberritua, sukaldea guztiz ekipatua, 2 bainugela, 3 logela, egongela, trastetegia, berogailua gas naturalaz, etxe guztian musika sistema, satelitezko TB gela guztietan, terraza polita ikuspegi ederrarekin, telefonoa, sotoa, garajea aukeran. Tfnoa: 77 02 81. Gaueko 9.30etatik 11etara.
- **Santa Teresa 6, 3. ezkerreko etxebizitza salgai** dago bai atarte berebean dagoen bezero oneko ileapaindegi lokala ere. Tfnoa: 79 03 64.
- **Eskoriatzan pisua osatzeko neska baten bila gabilta.** Tfnoa: 81 66 24.
- **Erguinen etxebizitza salgai.** Amueblatua, gas naturala, hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela, bi terraza, eguzkitsua, bista ederrekoa eta garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.

## LANA

- **Frantseseko klase partikularrak emateko irakaslea behar da Aretxabaletan.** Dei egin 79 02 96 tfnora iluntzean.
- **Neska prest OHoko klase partikularrak emateko.** Dei egin 77 11 84 tfno.ra 5etatik 6.30etara eta 8.30etatik aurrera.

- **Klase partikularrak ematen dira** (fisika, kimika eta matematika). Dei egin 77 13 95 tfnora.
- **Emakume euskalduna etxeko lanak egin** edo umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Irakasle Eskolako ikasle batek OHoko neska mutilei emango lizkieke klase partikularrak.** Tfnoa: 79 94 04. 6etatik 9ak arte. M<sup>a</sup> Jose.
- **OHoko klase partikularrak ematen dira.** Eskoriatzako Irakasle Eskolan ikasten gaude, eta esperientziadunak gara. Dei egin 79 14 33 Tfnoa. Esther.
- **Magisteritza Eskolako ikasle bat, OHoko klase partikularrak emateko prest** legoke. Dei egin 79 74 03 tfnora.
- **Experientziadun neskak etxeko lanak egin** edo umeak ala pertsona nagusiak zainduko litzuzke. Tfnoa: 79 15 35

## SALEROSKETAK

- **Pegaso J4 furgoneta egoera onean salgai** (6 urtekoa). Dei egin 79 26 81 eta 77 01 79 tfnoetara.
- **4 tokitako sofa salgai.** Estreinatua berria eta oso egoera onean, moderno eta oso merke. Deitu lan-orduetan 79 62 80 tfnora. Rosa.
- **80cm-kosomier eta koltxoi berri-berriak salgai.** Tfnoa. 79 62 80. Rosa.
- **Autorako erremolkea salgai.** Tfnoa: 76 45 12.
- **Eskupeta paraleloa oso egoera onean salgai.** Tfnoa: 76 45 12.

- **Birkientzat kotxe-aulkia salgai, oso egoera onean dago.** Dei egin 10etatik aurrera 94- 658 21 97 tfnora. 10etatik aurrera.
- **GAC First mobilette salgai.** Dei egin 79 45 74 tfnora. Aitor.
- **la berria dagoen arko -izozkailua saltzen da** 65.000 PTAan. Neurriak 1,30 cm. luzeera, 0,90 cm. altueran eta 0,65 cm. zabaleran. Dei egin astearte larunbat bitartean 94 - 682 04 83 tfnora.
- **Talbot Horizon autoa salgai.** SS-N matrikuladuna. Motorea errektifikatua eta errebisioa eta aseguru abuztuan eginak ditu; beraz, aukera ezin hobea. Interesatuak dei egin 94 - 682 04 83 tfnora. astearte-larunbat bitartean goizeko 9etatik 12.30etara.
- **Orbea markako lasterketa-bizikleta berri berria salgai.** 25.000 PTA Tfnoa: 79 40 44

## DENETARIK

- **Betaurreko bifokalak galdu ditut.** Dei egin 79 57 58 tfnora. Saritu egingo dut.
- **Katu-oin bat galdu dut Aretxabaletatik Arrasaterantz.** Tfnoa. 79 25 15.
- **Eskumuturreko erlojua galdu du.** Nire lehenengo jaunhartzekoa da. Dei egin 79 29 39 tfnora. arratsaldeko 7.30etatik aurrera.
- **Bilbora eramateko prest dagoenari:** mesedez, deitu berriro, zure telefono-zenbakia gaizki daukat eta. Tfnoa: 79 22 63.

# BIDEO-EMANALDIA

## Espioiak gu bezala



**Tokia:** Monterron Kultur Etxean

**Eguna:** abenduaren 14ean

**Ordua:** arratsaldeko 4.30etan


**Prezioa:** 50 PTA

**Sarrerak:** Monterronen

**Antolatzailea:** Arrasateko Udaleko Euskara-Batzordea

# Zer nahiago?

## German Moreno Xaramela tabernakoa



- Tabernan ala lantegian? Tabernan; jeferik ez dudalako.
- Santamasak ala Maritxu Kajoi? Maritxu Kajoi.
- Apaiza ala politikoa? Ez bata ez bestea.
- Tabernako lana, egunez ala gauzez? Egunez, gaua gaua ederra da parrandan ibiltzeko.
- 70-eko musika ala gaur egunekoa? 70.ekoa. *The Doors*.
- Tabernan euskaraz ala erdaraz? Euskaraz.
- Bezeroak gazteak ala helduagoak? Bigarrenak. Formalagoak direlako nahiz eta batzuetan...
- Afrika ala Amerika? Afrika.
- Idigoras ala Garaikoetxea? Toreroa.
- *Terminator* ala *9 semanas y media*? *9 semanas y media*
- Barneko arropa zuria edo beltza neskeentzat? Beltza, gutxiagok eramaten dutelako.
- ETB ala TVE? ETB, bertakoa eta euskaraz delako.
- Realak Madrilen aurka irabazi ala galdu? Irabazi, 1-0 nahikoa.
- Pintxoak beroak ala hotzak? Beroak.
- Oinez ala kotxez? Oinez, baina kanpoan nahiago kotxez.
- Eskuz ala kalkuladoraz? Kalkuladoraz.
- Egunkaria ala aldizkaria? Egunkaria.
- Txikiteoa ala kafe-ordua? Txikiteo-ordua.
- Emakumezkoen tertulia ala gizonezkoena? Gizonezkoena.
- Gaupasa egin ala 10 orduz lo egin? Gaupasa egin.

# Bertsotan

## Loteria


1

Berriro ere etorri zaigu loteriaren bolada, zenbaki ona ei dugu eta sekulakoa demanda. Loteri hori kasualitatez herrian suertatzen bada, olentzero be esan dutenez bi aldiz pasatuko da.

2

Aberasteko gogoa nonbait deneri zaigu ageri, berriz bakar bat ibiliko da dirutan lasai igeri! Konturatzeke izaten gara zer dan on ta zer mixeri, diru loteri ezean ere ba dala hainbat loteri.

ION IÑAKI IZARZELAIA



# PUB HAIZEA



## LORATEGI

taberna

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67





**A**rgazkian azaltzen den taldea Gipuzkoako futbol txapelketako irabazlea izan zen 1942-1943 denboraldian. Txapelketaren finalak Tolosaren aurka jokatu ziren. Tolosan jokatu zen partidua, launa bukatu zuten eta Arrasaten

jokatutakoan, berriz, 5-0. Beraz, Arrasateko taldea izan zen irabazlea.

Argazkia Urbiako taberna aurrean ateratakoa da eta ezkerretik eskumara eta atzekaldekoak honako hauek dira: **Cano, J. M. Aranburu, Aranbarri, Monti, Heriberto Mendizabal, Benito Etxebarria, Castor, Pereira, Ramon Heriz, Fertxu Aranburu.**

Erdiko ilarakoak, berriz, honako

hauek dira: **Joxe Errasti, Oregi, D. Jose Maria, Juanito Madinabeitia, Jesus Vitoria, Urreta, Satur Vitoria, Txanbolin.**

Eta azkenik, azpiko ilarakoak honako hauek dira: **Sologaitoa, Zeziaga I, Patri, Ayala, Manolo Amosarrain, Zurdo, Erregetxo.**

Angel Arregi ere taldeko partaide zen, nahiz eta ez agertu argazkian.

**ESTETIKA ZENTRUA**

lurrindegia, opariak, jostailuak

**Z**arraoa

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

**ARGI PLASTIC. C. B.**

**PVC eta aluminiozko leihogintza**

Berria Arrasaten! Diseinu berriak!

Axeri, 3 ARRASATE  
Tfnoak: 77 02 40 / 77 11 30

## Mikel Irizar

# ATB heldutasunera iritsi da


Azken boladan "Arrasate Komunikabideak" izeneko elkarte berria agertu da han-hemenka, herriko nahiz kanpoko komunikabideetan. Elkarte honen berri zehatzagoen bila Mikel Irizarrengana jo dugu. Duela lau urtetik Arrasaten bizi den ormaiztegiar hau Arrasate Press eta ATBko kolaboratzaile izan da sorreratik.

— Zer da "Arrasate Komunikabideak"?

— ARKO sortu berri den kultur elkarte da. Jakina da Arrasate Press eta ATB AEDren barnean sortu zirela eta bertan egin dutela orain arteko bidea. Bide horretan, ordea, dimensio handia hartu dute eta neurri batean AEDren ohizko iharduerarentzat oztopo bilakatzen ari ziren. Horregatik erabaki da elkarte berri hau sortzea, bi komunikabide horiek eta etor daitezkeenak jestionatu ditzen.

— Zertan da oraintxe ARKO?

— Oraindik egituratze lanetan ari gara eta horregatik, hain zuzen, ez dugu ofizialki ezagutzera eman. Arrasate Press eta ATBren artean muntaia handia osatzen dute eta guzti hori efikaziaz jestionatzeak azpiegitura sendoa eskatzen du. Horretan ari gara. Izan ere,



aldizkariaren iharduera ondo finkatuta dagoen bitartean, telebistarena birplanteamendu sakona eskatzen zuten.

— Zergatik bereizketa hori?

— Nik uste, funtsean, prentsa idatziaren eta telebistaren artean badagoela oinarritzko diferentzia bat. Prentsa idatzian eredu asko dago, esperientziadun jendea era bai, teknologia nahiko erraz mendera daiteke. Telebistan berriz ez dago erreferentziarik, ez dago azpiegiturarik, ia guztia asmatu egin behar da. Horregatik, Arrasate Press segituan finkatu zen bitartean, ATBk ia bi urte behar izan ditu heldutasunera iristeko.

— Eta iritsi da?

— Bai, eta urteberritan hasteko den programazio berriarekin frogatuko da hori. Azken hilabeteotan ATBk zituen arazoak aztertzen ihardun gara eta konponbideak topatzen. Arazo teknikoei soluzioa aurkitu diegu eta orain seinalea ondo irtetzen da. Lan-antolaketa ere asko hobetu dugu. Eta programazio berriarekin salto handia emateko moduan gaude. Hain zuzen ere, asteen 6/7 ordu emititzetik —errepikapenak kontatu gabe— 20 ordu inguru emititzera pasatuko gara urteberritan. Aste-ro bost programa ezberdin emango dugu, informatiboaz aparte, eta pelikulak ere bai.

— Telebista pribatuak sartu berriak dira Arrasaten. Zer etorkizun izan dezake ATBk horrenbeste kompetentziarekin?

— ATBk badu zerbait besteek ez dutena, herrikoa izatea hain zuzen. Horretan datza bere indarra, baita bere muga ere. Inork ezin du eman Arrasateri buruz guk besteko informazioarik. Inor ez da ATB bezain eskuera egongo edozein arrasatearrek telebistan parte hartu nahi badu. Aldi berean, horrek ez du asetuko zenbaiten jakinmina eta beste kateetara ere joko dute. Baina hori normala da. Ez dut uste inork telebistakate bakarrik ikusten duenik, batez ere urrutiko mandoa asmatu zenetik. Jendea saltoka ibiltzen da kate batetik bestera eta horregatik da inportantea seinale onaz eta interesaz aparte, emisio-ordetgia ahalik eta zabalena izatea.

— Baikor zaude, beraz.

— Bai, bai. Herri-telebisten fenomeno indartzatza mundu zabalean, gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio. Bestalde, bi urteotan asko ikasi dugu eta aurrerantzean zerbitzu ona emateko moduan gaude. Arrasatek ATBekin izan duen pazientziari behar bezala erantzunio diogu.

## LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2

Erakusketa: Sancho Abarca, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



zeure moda  
diseinatu  
eta sortzen laguntzen dizu

Zerkaosteta, 5 behea.  
ARRASATE Tfnoa: 79 89 72



# Telebegi

Dagoeneko prest daukagu ATBn *Urtarrileko Iraultza*. Baina... zertan izango da *Iraultza* hori?

• Aurrerantzean programazio finko eta zabala eskainiko dizuegu.

Informatiboak egunero, astelehenetik ostiralera.

Albistegi hauei ordu erdi inguruko saioa gehituko zaie: igandean *Mondragol*, astelehenean kirolak, asteartean erreportaiak, asteazkenean *Txatxaran* elkarrizketa-saioa, ostegunetan *ATBketan* lehiaketa berria, eta ostiraletan musika-ren txokoa.

Horrez gain, azkenik, pelikulak emitituko ditugu.

• *Urtarrileko Iraultza*-kin batera aurpegi berriak helduko dira ATBra, gehienak oso gazteak. Horrek ez du esan nahi ATB ghetto bat izango denik. Gertatzen dena zera da, gazteak errazago inplikatzeko direla honelako lanetan mondrauetar helduak baino.

Etorri nahi izan dutenekin, beraz, ATBk aurrera.

Zuei, ikus-entzuleei, konfidantzazko boto bat eskatuko nizueke; azken finen, ze demontre, etorkizuna gazteena delako!

Besteok gogoratu, dena den, atek zabalik daudela hurbildu nahi duzuen gutzientzat. Edonoren laguntza eta proposamenak benetan ongietorak izango dira.

*Urtarrileko Iraultza*, beraz, prest. Zuon, arrasatearren gustokoa izango ote da? Auskalo. Hala bedi!

JON ANDUEZA

## Erreportaiak

Asteartea, 9.15

Astero bezala, oraingoan ere bi erreportaiak interesgarri izango dituzue ikusgai ATBn.

Batetik, Gabonetan barrubarruan pizten zaigun kontsumorako sukarra izango dugu aztergai.

Eta bestetik, Arrasaten pisuetan bizi diren ikasle kanpotarrek bilduko gara, beren esperientzien berri jasoz asmoz.

Erreportaiak ATBn. Ez galdu aukera!

## Mondra-Gol

Aste honetan:  
Zornotza-Mondra

Igandean  
9.15etan

## Txatxaran

Asun Agiriano,  
liburuzaina

Ostegunean  
9.15etan

## Musikala

Arrasate Musikal-i  
eskainitako saioa

Ostiraletan  
9.15etan

## Programazioa

15

### IGANDEA

9.15etan, *Mondragol*. Zornotza-Mondra partiduaren ordu erdiko laburpena. Itxaro Zubillagak aurkeztutako saioa.

17

### ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Egunean zehar jasotako notiziak.

9.15. *Erreportaiak*. Aste honetan, Gabonetako kontsumoari buruzko lan bat, eta Arrasateko pisuetan bizi diren ikasle kanpotarrei buruzko beste bat izango dituzue ikusgai.

19

### OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Albistegia.

9.15. *Txatxaran*. Maider Egués-ek zuzendutako, elkarrizketa-saioa. Aste honetako gonbidatuak: **Asun Agiriano**, liburuzaina.

16

### ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albiste-emanaldia.

9.15etan, *Mondra Sport*. Arrasateko kirol-munduen errebasoa, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uribealgorekin.

18

### ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albistegia


20

### OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Albistegia.

9.15. *Ostiral Musikala*: Marta Izagirrek zuzenduta, Arrasate Musikali eskainitako saioa.

# USOA JERTSEAK



Aukerarik  
handiena!

**OLARTE, 7 ARRASATE**  
**Tfnoa: 79 71 63**

